

***U.N(INVERSE)***  
**UNIBERTSOA**  
MILES ORVELL

*U.N(inverse)*, Txuspo Poyo-ren obra, ikuspegi askotatik azter daiteke: lehen-lehenik, bideo-edizioaren *tour de force* bat da, txundigarria bere ikus-efektuetan; bigarrenik, Nazio Batuen —*U(nited) Nations*) tituluaren ingeles siglen jatorria— Erakundearen eraikinaren esplorazio burutsu bat, hura arkitekturatzat eta misteriotzat hartuta, eta, azkenik, XXI. mendeko politika globalari buruzko hausnarketa ilun bat, bere ikuspuntuak modu zeharkako eta alegoriko batean formulatzen dituena. Inolako zalantzarik gabe, nahasgarria bezain liluragarria gertatzen da lehen ikustaldian; esan liteke amets bat ari garela ikusten, eta irudi obsesibo batzuez betea dela: penduluak, banderak, kristal hautsiak, bonbillak, ibai zurrunbilotsu bat, kea, zintzilikariak, eta NBEren eraikinaren beraren maketa bat estaltzen eta agerian uzten duen kulunka bitxi bat. Orobat nahasgarriak dira, beharbada, artelanei (Picassorenak, Dürer-enak eta beste batzuenak) buruzko aipuak: han-hemenka dabilta igeri, esanahiaren atalasea igarotzeko gonbita egiten digutela. Baina, zer esan nahi du egiazki horrek guztiak?

Atsegin zait nola deskribatzen duen Neus Miró-k<sup>1</sup> Txusporen ekoizpena, Gilles De-leuzeren kontzeptuari jarraitu eta «errizomatikotzat» jotzen baitu. Kausa eta ondoriozko ohiko egitura linealean ez bezala, egitura errizomatiko batean edozein puntu beste batekin harremanetan jar liteke edonoiz. Interneten antzeko egitura bat da, estekak elkarri loturik direla, eta horixe egokitu du Txuspok bere bideo-lanetan erabiltzeko; Mirók duela ia hamarkada bat proposatu zuen bide hori, *U.N(inverse)* eko zenbait alderdiri aurrea hartuta. Kasu honetan, ordea, esango nuke Txusporen bideo-muntaia berrienak egitura lineal bat daukala, «bilbe» bat nahi bada, eta artistak lau ekitalditan banatu du obra. Hor, suspensea ageri da, iragarpen ilun beldurgarri franko, eta dena amaitzen den amaiera bat dago. Hala ere, osotasunaren barruan —eta ekitaldi bakoitzaren barruan—, egitura beti errizomatikoa da: jadanik badiren artelanan «ajputik» abiatzen da; horiek isilik, era iradokitzailean eta batzuetan ia ezarian bezala gehitzen zaizkio *U.N(inverse)*i, eta, hala ere, ideia multzo baten indarraz jokatzten dute, ikusleen erreakzioa eragiteko; interakzioan ari dira etengabe bideoko ageriko ikurrekin, baina gainazal hutsetik harago hedatzen dutela beren esanahi kontzeptuala. Zentzu horretan, aipuak *hyperlinken* antzekoak dira, eta asoziazio- eta esanahi-sare zabalago bat eraikitzeko gai.

Edonola ere, nahiz eta Txusporen sentsibilitatea gaur egungoa izan, hura XX. mendeko modernitateko artista handiekin lotuta ikusten dugu bestalde; ez soilik berak hain maiteak dituen Duchamp-ekin eta Picassorekin, baizik eta baita T.S. Eliot bezalako garai bereko poeten obrarekin ere. Txuspok *U.N(inverse)* en darabilen konposizio-estrategia *The Waste Land (Lur eremua)* bezalako poema batekin konpara liteke, adibidez. Bost ataleko egitura bat da lan horretan, trinkoa aipuetan, eta, atal bakoitzaren barruan, egitura parataktiko bat, eszenaka. *U.N(inverse)* ek ere trinkotasun hori bera ageri du, eta, modernitateko maisulan batzuek bezala, erritmo berezi bat dauka gainera, zehaztasun-estetika eta ausazko poz-estetika bat aldizkatzen dituena.

Jadanik aipatu dudanez, Txuspok lau ekitalditan banatu du bere obra, eta bakoitzak ongi definituta ditu eduki tematikoak eta estetikoak. Horiek inon den eraikin baikorrenaren inguruan dabilta, hots, Nazio Batuen Erakundearen eraikinaren inguruan. Nazioarteko ordena berri bat ezartzeko aukeraren (edo beharraren) ikurra da hura, eta arkitekto halaber baikor batek, Le Corbusier-ek, diseinatu zuen, arkitekturari esker arrazoimena nagusi zen mundu bat amesten zuelako. Tituluko hasierako fotogrametatik, haatik, Txusporen ikuspegi maltzuraren halako zantzu batzuk ikusten ditugu *U.N(inverse)* en: hartu Nazio Batuen Erakundearen egoitza, unibertso politikoaren osotasuna ordezkatzten duen ikurra, eta «alderantzikatu» —itzulitara jarri—, haren arrazoinaltasun-ardatza aldatu, gauzak agertzen eta aldi berean ezkutatzen dituzten alderantzikatzte-metodo batzuen bitartez. Bai: agertzeak

eta ezkutatzeak eratzen dituzte bideoko eduki estetiko nagusiak, hura denboran garatuz joan ahala.

Irekiera-sekuentzia berezia da: *U.N(inverse)* hitza ageri da lurbira beltz bat inguratzen (jadanik bideoaren esanahi iluna iragartzen baitigu horrek). Jakina, sekuentziak Universal Studios-en logotipoa iradokitzen du halaber, eta horrek oroit-arazten digu zenbateraino liluratu duen zinemak, elementu artistiko gisa, Txuspo, urteetan zehar, obra ugarietan. Azpimarra genezake, orobat, proiektzioko lehen minutuetan Nazio Batuen eraikinaren irudiek pantaila betetzen duten bitartean, Alfred Hitchcock izan zela Univesaleko zuzendari handietako bat. Haren film bat, *Heriotza orpoetan* (Metro Goldwyn Mayer-ek ekoitzia, 1959an, gerra hotza gorenean zenean), NBEren eraikineko eszena batekin hasten da. Bertan, protagonista nagusiak (Cary Grant) erail berri duten diplomazialari bat hartzen du besoetan halabeharrez, eta berari leporatzen diote krimena zuzenean. Granten pertsonaiak ihesi ematen du film osoa, errugabea izan arren, bere ardatzetik bortizki erauzi duten mundu bat ulertzen saiatzen dela. Txusporen NBEren eraikinak oihartzun hitchocktar horiek ditu, eta *U.N(inverse)*-ko unibertso osoa gaurko gure munduko zorotasunera jaiste posmoderno asaldagarri bat da, non zorotasuna bera arrazionaltzat hartzen baita. «Iparretik ipar-mendebaldera bakarrik nago erotuta», dio Hamlet-ek, filmaren jatorrizko tituluarekin (*North by Northwest*) bat datorren esaldi batean. Azkenean, obra hileta-kanta bat da gure munduarentzat eta Kanpantillarenen (*Peter Pan*-eko maitagarri txikia) gisako gure ametsentzat.

Txusporen *U.N(inverse)*-k berehala erakartzen du ikuslea, baina bada zerbait gehiago zintan, begirada istantean harrapatzen duena. Ekitaldiz ekitaldi saiatuko naiz irakurtzen Txusporen lana, eta agerian jarriko dut —artistaren beraren metafora erabil badezaket— bideo bitxi kezkarri horretako drama, bai eta haren esanahi mamitsu eta filosofikoa ere.

U.N(inverse)ren irudi nagusiak, 2001. urteko Nazio Batuen Erakundearen eraikinaren esplorazio burutsuaren irudiak.

Bi irudi nagusi dira 1. ekitaldiaren ardatz, eta ekitaldiaren izena hauxe da: ***Punto de encuentro: el péndulo del vestíbulo. Buscando a Eleanor*** (*Elkargunea: atariko pendulua. Eleanor-en bila*). Aipatu den lehen irudia NBEren eraikinaren maketa da, eta bigarrena, Foucault-en pendulua, egoitzaren barruan baitago kokatuta. Lehen une batean, filmean «sartzen» gara, eta eskailera-atal baten bidez —ikusle gisa dugun sarbidea— egiten dugu. Lur azpiko solairu batera garamatza. Hor, pendulu bat dabil kulunka, eta, apur bat harago, estalitako zer bat igaritzen da. Tailer gisako areto batean gaude. Luzaro gabe, estalki gris lodia kentzen dute (edo, hobeki esan, bere kabuz kentzen da), *streptease* batean bezala, doinu bitxiki erotiko batzuekin. Txusporen asmo surrealistak, bada, bideoaren hasieran iragartzen dira, zeren estalitako objektuak Man Ray-k 1920an estalitako entitate bati egin zion argazkira bidaltzen baikaitu, *Isidore Ducasse-ren enigmara*: manta militar batean bildutako eta soka batez lotutako objektu ezezagun bat. Man Rayren tituluak Ducasseren —Lautréamont-eko kondearen egiazko izena— esaldi bat omentzen zuen: «Disekzio-mahai baten gainean josteko makina batek eta aterki batek duten ezusteko bat-egitea bezain ederra» (*Maldoror-en kantak, 1869*), eta batek ondorioztatzen du, gainera, bi gauza horiexek estali zituela Man Rayk bere obrarako<sup>2</sup>; dena dela, ordea, Ducasseren aipuak eta Rayren irudiak mugimendu surrealistaren inkongruentziak pertsonifikatuko zituzten laster.

U.N(inverse)ren irudi nagusiak, 2001. urteko Nazio Batuen Erakundearen eraikinaren esplorazio burutsuaren irudiak.

<sup>[1]</sup> Man Rayk estali gabeko josteko makina bati eta aterki bati egin zizkien argazkiak geroago

